Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2090

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 30ekoa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, NBE-2007BA/0055 erreferentziako proiektuan aritzeari Jessica Domínguez Gómezek uko partziala egiteko aurkeztutako eskabidea onartzeko dena. EAEko Unesco Etxea Elkarteak aurkeztu zuen proiektua, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei zuzendutako diru-laguntzarako deialdiaren barruan. Diru-laguntzok, 2007an, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei 2007. urtean emateko laguntzetarako deia egin zuen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoarekin bat, EAEko Unesco Etxea Elkarteari 2007. ekitaldirako 15.450 euroko diru-laguntza eman zitzaion, Jessica Domínguez Gómez lankidearen gastuak ordaintzeko. Aipatutako lankideak Uruguayn garatu behar zuen jarduera. Garapen Lankidetzarako zuzendariaren 2008ko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez luzapena eman ostean, diru-laguntza 30.450 eurokoa da.

Bekadunak, hala ere, 2009ko otsailaren 24an, diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea igorri zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Bekaduna luzapeneko 32 egunez baliatu denez gero, luzapeneko epealdiari doakion laguntza 1.315,06 eurokoa da. Eta kontuan izanik luzapenari zegokion 9.000 euroko ordainketa egin zela, 7.684,94 euro itzultzea dagokio, eta ez dagokio bigarren ordainketarik.

Azaldutako guztiagatik, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak entitate onuradunak eskatutako aldaketak onartzearen aldeko txostena egin du. Beraz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– EAEko Unesco Etxea Elkarteak proiektu bat aurkeztu zuen, zehazki, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei zuzendutako diru-laguntzarako deialdiaren barruan. Diru-laguntzok, 2007an, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira. Bada, deialdi horren barruan Jessica Dominguez Gó-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

2090

RESOLUCIÓN de 30 de marzo de 2009, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia parcial a Jessica Domínguez Gómez que debía desarrollar su actividad en el proyecto con referencia NBE-2007BA/0055 presentado por la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con cargo al Focad 2007.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 5 de mayo del 2007, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas a Organismo Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2007 se concedió a Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco una ayuda de 15.450 para sufragar los gastos de Jessica Domínguez Gómez que debía desarrollar su actividad en Uruguay. Tras la concesión de la prórroga mediante Resolución 22 de septiembre de 2008, del Director de Cooperación al Desarrollo, la subvención pasa a ser de 30.450 euros.

Con fecha 24 de febrero de 2009, fue remitida a esta Dirección de Cooperación al Desarrollo la solicitud de renuncia parcial a la beca.

Dado que la becaria ha disfrutado de 32 días de la prórroga concedida, la ayuda que le corresponde para el periodo de dicha prórroga es de 1.315,06 euros. Considerando que se le hizo un primer pago de la prórroga de 9.000 euros, le corresponde devolver 7.684,94 euros y la no realización del segundo pago.

Por todo lo expuesto, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia parcial solicitada por la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco País Vasco para becar a Jessica Dominguez Gómez presentado dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con

mez-i beka emateari dagokionez, uko partziala egiteko, EAEko Unesco Etxea Elkarteak aurkeztutako eskabidea onartu egiten da. Beraz, 7.684,94 euro itzultzea dagokio, eta ez dagokio bigarren ordainketarik.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari. Ebazpenaren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 30a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

cargo al Focad 2007, lo cual supone la devolución de 7.684,94 euros y la no realización del segundo pago.

Segundo.– Contra la presente resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2009.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.